


DONOSTIA GAZTERIAKO PLAN ESTRATEGIKOA

2021-2024

2021eko ekaina





AURKIBIDEA

1	SARRERA.....	- 3 -
2	HELBURUAK.....	- 4 -
	2.1 Helburu nagusia.....	- 4 -
	2.2 Helburu zehatzak.....	- 4 -
	2.3 Zeharkako helburuak.....	- 4 -
3	PROZESUAREN DESKTRIBAPENA.....	- 5 -
	3.1 Prozesuaren eskema.....	- 5 -
	3.2 Prozesua urratsez urrats.....	- 6 -
	3.2.1 Abiatzea	- 6 -
	3.2.2 Hausnarketa	- 9 -
	3.2.3 Ekarpenak egitea.....	- 10 -
	3.2.4 Itxiera.....	- 11 -
4	EMAITZA: PLAN ESTRATEGIKOA.....	- 12 -
	4.1 Misioa, bisioa eta balioak.....	- 12 -
	4.2 Ekintza-plana.....	- 13 -
	4.3 Ebaluazioa.....	- 23 -

1 SARRERA

Donostiako Udaleko Gazteria Sailak 0-30 urte bitarteko donostiarrei, euren interes eta beharretatik abiatuta eta euren eskubideen sustapenean eta defentsan bidelagun izanik, haur, nerabe eta gazteen bizitza-ziklora egokitutako eta pertsonaren autonomiaren garapenean lagunduko duen funtsezko eta erreferentziazko bidelagun eta laguntzaile gisa irudikatzen du bere burua.

Donostiako haur, nerabe eta gazteei euren bizi-kalitatean eta gizarte-ongizatean eragingo duten sustapen-politikak garatzeko orduan, gainera, Gazteriak Sailak lehentasunezko ikusten du haur, nerabe eta gazteen sustapena zeharkakotasunez landu behar dela. Eta horretarako, Donostiako Udaleko beste sail eta erakundeekin eta haur, nerabe eta gazteen alorrean diharduten beste eragileekin lankidetzan eta elkarlanean aritzea lehenesten da.

Halaber, Gazteria Sailak ezinbesteko ikusten du Donostiako haur, nerabe eta gazteak subjektu hartzaile izatetik plan estrategikoaren definizioan subjektu aktibo izan behar direla.

Testuinguru honetan garatu da Gazteria Saileko 2021-2024 plan estrategikoaren hausnarketa-eta partaidetza-prozesua.

2 HELBURUAK

2.1 Helburu nagusia

Donostiako Udaleko Gazteria Sailaren jardunaren inguruko hausnarketa konpartitua egitea, datozen lau urteetarako erronkak adostu eta plan estrategikoa lantzeko.

2.2 Helburu zehatzak


- Gazteria Sailaren 2024 urtera bitarteko erronkak identifikatzea, aurreko planaren ebaluaziotik abiatuta.
- Etorkizunerako helburu estrategikoak eta lan-ildo nagusiak identifikatzea eta lehenestea
- Haurtzaro, nerabezaro eta gaztarora zuzendutako helburuak eta estrategia zehatzak lantzea.
- Gazteria arloa zeharkakotasunez kudeatzeko, plan estrategikoaren diseinuan, Donostiako Udaleko Sail eta Erakunde desberdinetatik garatuko diren ekintza eta programen koordinazioa eta artikulatzea bermatzea.
- Plan estrategikoari jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna sortzea.

2.3 Zeharkako helburuak

- Donostiako Udalean pentsamendu estrategikoa indartzea.
- Gazteria Saila hiriko haur eta gazteen errealitatearen subjektu eraldatzaile aktiboa izatea.
- Gazteria Saila osatzen duen komunitateko kideen inplikazioa, plan estrategikoaren garapenerako subjektu aktibo bilakatzea eta pertsonen arteko hartu-emana indartzea.

3 PROZESUAREN DESKRIBAPENA

3.1 Prozesuaren eskema



3.2 Prozesua urratsez urrats

Lehen proposamenean aurreikusi eta jasotako eskemak hainbat moldaketa jasan ditu, partaidetza-prozesua abiatu eta honen garapenean zehar. 3.1 atalean jasotako lan-eskema da aurrera eraman eta garatu duguna.

Gazteria Saileko zerbitzu eta programetako koordinatzaile eta hezitzaileen parte hartzea jasotzen zen lehen proposamenean, baita Donostiako haur, nerabe eta gazteekin berariaz egin beharreko hainbat lanketa ere. Baina, COVID-19aren izurritea dela-eta, eta zerbitzu eta programek jasandako eten eta murrizketek partaidetza-prozesua atzeratu eta lan-prozedura beste bat izatea ekarri dute.

Egokitzapen nagusiak hauek zan dira:

- Alde batetik, Gazteria Saileko lantaldearekin aurreikusi gabeko bi lan-saio egin ditugu, plan estrategikoaren definizioan euren parte hartzea areagotuz.
- Bestetik, hausnarketa-taldearen osaera zabaldu dugu aurreikusita ez egon arren, bai Donostiako Udaleko beste sail eta erankundeetako arduradun eta teknikariak, bai gazteria alorreko Gipuzkoa eta Euskadiko eragileak gonbidatuz.
- Era berean, partaidetza-prozesu ia osoa on-line egin dugu, honek dituen onura eta albo-ondorioen jakitun.
- Eta aurrez aipatu bezala, zerbitzu eta programetako koordinatzaile, hezitzaile eta haur, nerabe eta gazteekin lanketarik ez da egin. Hauen parte hartzea bigarren prozesu batean bermatuko da.

3.2.1 Abiatzea

Hasteko eta behin, talde eragilean Gazteria Sailaren 2021-2024 plan estrategikoa garatzeko prozesua onartu, lan-egiturak osatu eta komunikazio-plana adostu genituen.

Talde eragilea

Osaerari dagokionez, honako hauek osatu dugu:

IZEN-ABIZENAK	ARDURA
Gorka Goiatxe	Gazteria, Hezkuntza eta Aterpetxeen Atalaren burua
Miren Mancisidor	Gazteria Saileko teknikaria, plan estrategikoaren arduraduna
Idurre Zugazagasti	Elhuyar

Guztira, zazpi bilera egin ditugu eta taldearen egitekoa Gazteria Sailaren plan estrategikoa garatzeko partaidetza-prozesua gidatzea eta koordinatzea izan da, beharrezko informazioa eta baliabideak denon eskura jarritz.

Lan egiturei dagokionean, talde eragileaz gain, hurrengoak aktibatu ditugu.

Gazteria Lantaldea

Osaerari dagokionez, honako hauek osatu dugu:

ARDURA
Gazteria Saileko administraria
Gazteria Saileko teknikaria. Komunikazioa
Gazteria, Hezkuntza eta Aterpetxeen Atalaren burua
Gazteria Saileko teknikaria. Nerabeen ataleko arduraduna
Gazteria Saileko teknikaria. Gazteen ataleko arduraduna
Gazteria Saileko teknikaria.
Gazteria Saileko teknikaria. Komunikazioa
Gazteria Saileko teknikaria. Plan estrategikoaren arduraduna
Gazteria Saileko teknikaria. Haurren ataleko arduraduna

Gazteriako Saileko arduradun eta teknikariek osatutako taldeak bi lan-saio egin ditu.

Bigarren lan-saioan Ane Oyarbidek, Donostiako Udaleko Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide zibileko zinegotzi ordezkariak, eta Imanol Telleriak, Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuaren buruak ere parte hartu dute.



Taldearen egitekoa euren errealitatetik abiatuta plan estrategikoa kokatu, eraiki eta hausnarketa-taldeak egingako lana aberastea izan da.


Hausnarketa-taldea

Hausnarketa-taldean, guztira 34 lagunek hartu dute parte, % 76 emakumeak eta gainerako % 24 gizonak.

SAILA / ERAKUNDEA	Ordezkarikopurua
Artaziak	3
Donostia Kultura	1
Donostia Lagunkoia	1
Donostiako Udala. Berdintasun Saila	3
Donostiako Udala. Euskara Zerbitzua	3
Donostiako Udala. Giza Eskubideak Saila	1
Donostiako Udala. Gizarte Ekintza Saila	2
Donostiako Udala. Herri Partaidetza Zerbitzua	1
Donostiako Udala. Hezkuntza Saila	1
Donostiako Udala. Kultur Aniztasuna Saila	1
Donostiako Udala. Osasun Publikoa	2
EGK	3
GFA, Gaztematika	1
Hezi Zerb	4
Kristina Enea Fundazioa	1
Kutxa Fundazioa	2
Mondragon Unibertsitatea	2

Abiatzearen baitan, hausnarketa taldeko kideei ariketa-orri bat bidali diegu Gazteria Sailaren gaur egungo jardueraren berri jaso eta etorkizunerako erronka nagusiak identifikatzeko helburuarekin.

Guztira 29 lagunek erantzun dute ariketa-orria. Erantzun dutenen % 85 emakumeak dira eta gainerako % 15 gizonak.



3.2.2 Hausnarketa

Testuinguru honetan, Gazteria Sailaren 2017-2020 plan estrategikoaren ebaluazioa oinarri hartuta eta ariketa-orrietako ekarpenak aztertuta, Gazteria Sailaren 2021-2024 urteetarako plangintza definitzeari ekin diogu.

Lehenik eta behin, eta Gazteria lantaldearekin berariaz egindako lan-saioan, Gazteria Sailaren misioa, bisioa eta balioak definitu ditugu, hurrengo lau urteetarako erronkak identifikatzearekin batera. Gazteria lantaldearen lehen saioan lantalde osoak, hau da, 9 lagunek, hartu dute parte.



Plan estrategikoaren lehen zertzeladak esku artean hausnarketa-saioa egin dugu. Hausnarketa-talde handia izanik eta COVID-19aren izurritea dela-eta, lan-saioa on-line egitea lehenetsi behar izan genuenez, taldea hirutan banatu da.

Guztira 38 lagunek hartu dute parte, % 72 emakumeak izan dira eta gainerako % 18 gizonak.




Lehen hausnarketa-saio honen helburua Gazteria Sailaren plan estrategikoaren lanketarekin hastea izan da, baita identifikatutako lau erronken gaineko hausnarketa partekatua egitea ere.

3.2.3 Ekarpenak egitea

Bildutako gogoetak eta ekarpenak aintzat hartuta, plan estrategikoaren lehen proposamena landu dugu. Lehenik eta behin, talde eragilean aurkeztu eta elikatu dugu, ondoren hausnarketa-taldearekin eta Gazteria lantaldearekin partekatu eta osatu delarik.

Kasu honetan ere, hiru hausnarketa-saio izan dira eta hauen helburua, adierazi bezala, Gazteria Sailaren hurrengo urteetarako identifikatutako erronkak erantzuteko proposatutako helburu estrategikoak, lan-ildoak eta ekintzak osatzea, gehitzea, kentzea... izan da.

36 lagunek hartu dute parte, horietatik % 80 emakumeak izan dira eta gainerako % 20 gizonak.



Hausnarketa-taldearen ekarpenak jasota, plan estrategikoaren behin behineko proposamena landu dugu. Proposamena osatu eta ixteko helburuarekin bigarren lan-saio bat egin dugu.

Aldez aurretik baina, eta planean Gazteria lantaldearen parte hartzea sendotu eta honen garapenak sortu dituen zalantzak ezagutu eta argitzeko galdetegi bat prestatu eta erantzun da.




Lan-saioan Gazteria lantaldeaz gain, Ane Oyarbidek, Donostiako Udaleko Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibileko zinegotzi ordezkariak, eta Imanol Telleriak, Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuaren buruak hartu dute parte. Guztira 10 lagun batu gara.

Tarte honetan, eta zinegotzi aldaketa tarteko, Ane Oyarbide Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibileko zinegotzi ordezkariarekin bildu gara Gazteria Sailaren 2021-2024 plan estrategikoaren berri eman eta bere konpromisoa berresteko asmotan.

3.2.4 Itxiera

Partaidetza-prozesuari itxiera emateko eta Gazteria Sailaren 2021-2024 plan estrategikoaren behin betiko proposamena esku artean, itzulera-saioa egin dugu.



Hausnarketa-taldeko 20 lagunek hartu dute parte eta Gazteria Sailak hurrengo urteetarako proposamen ausarta egin dutela azpimarratu dute. Era berean, emaitza osatzeko zerbitzu eta programetako koordinatzaile eta hezitzaileen parte hartzea eta haur, nerabe eta gazteen ahotsak entzutea ezinbestekotzat jo da.

4 EMAITZA: PLAN ESTRATEGIKOA

Donostiako Udaleko Gazteria Saileko plan estrategikoak 4 urteko iraupena izango du, 2021 eta 2024 urteen bitartean.

4.1 Misioa, bisioa eta balioak

Misioa

Donostiako haur, nerabe eta gazteei euren bizi-kalitatean eta gizarte-ongizatean eragingo duten sustapen-politikak garatzea, elkarlanetik eta arduratik pertsona aktiboak heziz.

Bisioa

Hiriko haur, nerabe eta gazteen interes eta beharretatik abiatuta eta euren eskubideen sustapenean eta defentsan bidelagun izanik, euren bizitza-ziklora egokitutako eta pertsonaren autonomiaren garapenean lagunduko duen funtsezko eta erreferentziatzko zerbitzua eskainiko dugu.

Horretarako, Udaleko gainerako sailekin koordinatuta eta elkarlanean, eta Gipuzkoako gazteria alorreko eragileekin lankidetzan jardungo dugu.

Balioak



Konfiantzan eta hurbiltasunean oinarritutako harremanak eta zerbitzuak eskaintzen ditugu.



Profesionaltasunez eta erantzukizunez jarduten dugu haur, nerabe eta gazteen sustapenean.



Gure egitekoan sinesten dugu, ilusioz eta motibazioz egiten dugu lan.



Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako elkarlana eta lankidetzak lehenesten ditugu.



Zerbitzu malgua gara eta egoera bakoitzari egokitzeko gaitasuna dugu.



Pertsona guztien aukera berdintasuna bermatzeko lan egiten dugu, aniztasuna modu eraginkorrean kudeatuz.



Haur, nerabe eta gazteak euren garapenean subjektu aktibo izatea sustatzen dugu.



Haurtzarora, nerabezarora eta gaztarora nortasun propioa duten bizitzako etapa gisa ulertzen ditugu.



Haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzuteko berrikuntza eta sormena erabiltzen ditugu.

4.2 Ekintza-plana

Gazteria Saileko plan estrategikoa lau erronkatan banatzen da.

ERRONKA		HELBURU ESTRATEGIKOAK / LAN-ILDOAK / EKINTZAK
1. ERRONKA	Lantaldea sendotu	<ul style="list-style-type: none"> · Helburu estrategikoak: 2 · Lan-ildoak: 6 · Ekintzak: 14
2. ERRONKA	Haur, Nerabe eta Gazteen sustapenean eragin	<ul style="list-style-type: none"> · Helburu estrategikoak: 2 · Lan-ildoak: 6 · Ekintzak: 24
3. ERRONKA	Zeharkakotasun-kultura landu	<ul style="list-style-type: none"> · Helburu estrategikoak: 3 · Lan-ildoak: 7 · Ekintzak: 16
4. ERRONKA	Posizionamendua hobetu	<ul style="list-style-type: none"> · Helburu estrategikoak: 2 · Lan-ildoak: 4 · Ekintzak: 7

Lehen erronkak barrura begiratzea eskatzen du, hau da, begirada Gazteria Saileko lantaldean jartzea. Bigarren erronkak berriz, Gazteria Sailaren lan-jardueran jartzen du fokua, haur, nerabe eta gazteen sustapena erdigunean jarriz. Hirugarren eta laugarren erronkek aldiz, Gazteria Sailaren lan-jarduera sendotu eta eragin-eremua zabaltzeko zeharkakotasun kulturaren eta posizionamenduan jartzen dute indarra.

1. ERRONKA - LANTALDEA

Gaur egun Gazteria lantaldea bederatzi lagunez osatuta dago. Azken urte eta hilabetetako lankide berrien etorrerarekin taldea egonkortze bidean dago, Gazteria Siletik haur, nerabe eta gazteen sustapenerako egiten den lanari osotasunez erantzuteko talde osagarri bat izanik. Osagarritasun horri ahalik eta probetxu handiena ateratzeko baina, taldearen antolaketan eta koordinazioan hainbat aldaketa egin beharra identifikatzen da, horregatik, taldearen lidergo- eta antolaketaren inguruan hausnartu eta dinamika berriak integratzea jaso da plan estrategikoan.

Lantaldea sendotzeko estrategian lankideen garapenean sakontzea izan da lehenetsitako beste aspektu bat eta horretarako zaintzari toki bat eskaintzeaz gain, sormenari eta berrikuntzari tarte zabalagoa eskaini nahi izan zaio ezagutzaren transferentzian eta trebakuntza-planean arreta jarritz.

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	LAN-ILDOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA				
				2021	2022	2023	2024	
1. ERRONKA: Lantaldea	1.1 Gazteria Saileko antolaketa-eredua sendotzea	1.1.1 Talde izaera indartzea	1.1.1.1 Gazteria Sailaren lidergo eredua definitu	x				
			1.1.1.2 Gazteria Sailaren egitura eta antolaketa doitu	x	x			
			1.1.1.3 Koordinazio egiturak eta bideak berraztertu eta dinamika berriak integratu	x	x			
		1.1.2 Gazteria Saileko kudeaketan eragitea	1.1.2.1 Urteko kudeaketa-plana prestatu, gauzatu eta ebaluatu	x	x	x	x	
			1.1.2.2 2025-2029 Plan Estrategikoa diseinatu				x	
		1.1.3 Berrikuntza sustatzea	1.1.3.1 Lankideen arteko kokreaziorako espazioak sortu		x	x		
			1.1.3.2 Zerbitzu eta programen hobekuntzarako saioak egin			x		
		1.1.4 Barne-komunikazioa	1.1.4.1 Donostiako Udaleko barne komunikazio plana Gazteria Saileko egunerokora egokitu		x	x		
		1.2 Pertsonen garapenean sakontzea	1.2.1 Lankide gaituak garatzea	1.2.2.1 Donostiako Udaleko trebakuntza-plana elikatu, lankideen interesak eta erakundearenak kontuta hartuta	x	x	x	x

			1.2.2.2 Kanpo-trebakuntza aukerak identifikatu	x	x	x	x
			1.2.2.3 Gazteria Saileko urteko trebakuntza-plana garatu	x	x	x	x
		1.2.2 Lankideak zaintzea	1.2.3.1 Langile berriei zuzendutako harrera plana eguneratu			x	
			1.2.3.2 Lankideen beharrianak ezagutu eta antzemateko prozedura bat ezarri		x	x	
			1.2.3.3 Lankideen arteko momentu informalak bilatu	x	x	x	x

2. ERRONKA – HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPENA

Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako politikak definitzerako garaian euren beharrak, nahiak eta interesak ezagutzea ezinbesteko baldintza da. Are gehiago, haur, nerabe eta gazteak subjektu hartzaile izatetik subjektu aktibo izatera igaro beharra identifikatu da eta bide honetan pausuak eman diren arren, bide honetan sakondu eta bide berriak aztertzea ezinbesteko ikusi da.

Testuinguru honetan, bi helburu ezarri dira. Batetik, haur, nerabe eta gazteen sustapen arloko behaketa egitea eta horretarako haur, nerabe eta gazteen errealitatea ezagutzea eta euren egoeraren gaineko diagnostiko partekatuak, azterlanak... egitea lehenetsi da. Kontutan hartuta, errealitatearen zuzeneko ezagutzak Gazteria Sailaren zerbitzu-eskaintza doitzea eta hobetzea ekarriko duela.

Bestetik, haur, nerabe eta gazteen sustapenerako esku-hartzean jarri da fokua. Haurtzaroak, nerabezaroak eta gaztaroak duten nortasun propioetik abiatuz, garrantzizko jo da Gazteria Sailetik egiten den jarduna ebaluatu, egokitu eta berritu beharra. Lanketa hau Gazteria Saileko taldeak egiteaz gain baina, ezinbestekoa da haurrak, nerabeak eta gazteak honen parte egitea, baita eurekin zuzeneko harremana duten zerbitzu eta programetako koordinatzaile eta hezitzaileak barne biltzea. Horregatik, erronka honi dagozkion ekintzak orokorrak eta irekiak dira, bigarren txanda batean benetako protagonistekin osatzea baita helburua.

Hala ere, eta aurreko puntuari estuki lotuta, zentralitate handia hartu du eta lehenetsi beharreko aspektu gisa detektatu da haur, nerabe eta gazteen parte hartzea babestea eta bermatzea, horregatik, alor honi lan-ildo propioa eskaini zaio. Besteak beste, auzo-komunitatean, hiri-antolamenduan eta udal-kudeaketan haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatzeko ekintzak proposatu dira, Donostia eurentzako hiri ere izan dadin.

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	LAN-ILDOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA			
				2021	2022	2023	2024
2. ERRONKA: Haur, Nerabe eta Gazteen sustapena	2.1 Haur, nerabe eta gazteen sustapen-arloko behaketa egitea	2.1.1 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatzea eta beharrak antzematea	2.1.1.1 Donostiako haur, nerabe eta gazteen diagnostikoa egin			X	
			2.1.1.2 Diagnostikoan haur, nerabe eta gazteen inguruan detektatutako behar espezifikoak buruzko eta eskubide urraketen inguruko azterketak egin				X
			2.1.1.3 Gazteria Sileti sustatutako politiken inpaktua neurtu (HNG eskubideen betetze-maila)			X	
	2.2 Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako esku hartzea indartzea	2.2.1 Haurren garapeneran eta ongizatean eragitea	2.2.1.1 Haurren ongizatea sustatu, emozien kudeaketa landu, jazarpen egoerak ekiditeko baliabideak eskaini eta prebentzioa landu	X	X	X	X
			2.2.1.2 Gurasotasun positiboa sustatzeko bideak landu eta lagundu	X	X	X	X
			2.2.1.3 Haurren aukera berdintasuna bultzatu	X	X	X	X
			2.2.1.4 Haurrei zuzenduriko aisialdi-eskaintza indartu	X	X	X	X
		2.2.2 Nerabeen autonomian eta harremanen kudeaketan eragitea	2.2.2.1 Nerabeen ongizate emozioanala sustatu	X	X	X	X
			2.2.2.2 Nerabeen ohitura osasungarriak eta kontsumo arduratsua bultzatu eta arrisku egoerei aurre hartu	X	X	X	X
			2.2.2.3 Nerabeekin harremanen kudeaketa landu	X	X	X	X
			2.2.2.4 Nerabeen autonomia landu	X	X	X	X
		2.2.3 Gazteen ahalduntzean eta herritartasunean eragitea	2.2.2.4 Nerabeei zuzenduriko aisialdi-eskaintza indartu	X	X	X	X
			2.2.3.1 Gazteen ongizatea sustatu, osasun afektibo-sexuala eta sozio-emozionala landu	X	X	X	X
			2.2.3.2 Gazteen berrikuntza eta sormena sustatu	X	X	X	X
			2.2.3.3 Gazteen emantzipazioa eta autonomia landu	X	X	X	X

			2.2.3.4 Gazteen ahalduntzea sustatu	x	x	x	x
			2.2.3.5 Gazteria Sailaren eta gazteen arteko kogestio bidezko proiektu baten aukerak eta bideragarritasuna aztertu	x	x	x	x
		2.2.4 Haur, nerabe eta gazteen parte hartzea babestea eta sustatzea, erantzunkidetasun partekatua oinarri	2.2.4.1 Haur, nerabe eta gazteek hiriaren eraikuntzan parte hartzeko espazio eta aukerak aztertu eta bideratu	x	x	x	x
			2.2.4.2 Garapen komunitarioko prozesu batean haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatu	x	x	x	x
			2.2.4.3 Belaunaldi arteko proiektu bat garatzeko aukerak aztertu eta bideratu				x
			2.2.4.4 Haur, nerabe eta gazteen ingurumen-jarrera arduratsuak sustatu			x	x
		2.2.5 Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako zerbitzu eta programak egonkortu eta indartu	2.2.5.1 Zerbitzu eta programetako giza baliabideak eta harreman-sareak kudeatu eta ebaluatu	x	x	x	x
			2.2.5.2 Zerbitzu eta programetako baliabide ekonomikoak kudeatu eta jarraipena egin	x	x	x	x
			2.2.5.3 Gazteria Sailaren azpiegiturak kudeatu eta egokitzapenak aztertu	x	x	x	x

3. ERRONKA – ZEHARKAKOTASUN-KULTURA

Haur, nerabe eta gazteen sustapena zeharkakotasunez landu beharreko aspektu bat da, hortaz, izaera honetaz jabetzea eta Donostiako Udaleko beste sail eta erakundeekin elkarlanean aritzea lehentasunezko aspektu gisa identifikatu da. Izan ere, eta gaur egungo errealitate konplexuak kontutan hartuta eta haur, nerabe eta gazteen behar eta nahien bilakaera azkarra aintzat hartuta, egunean egotea eta haur, nerabe eta gazteen errealitatean nagusitzen diren bizi-esparruak lankidetzan artatzea beharrezkoa da.

Beharrezkoak dira ere zeharkako gainerako politikak, izan, berdintasuna, gizarte ongizatea, euskara, osasuna, ingurumena, partaidetza eta abar haur, nerabe eta gazteen sustapenerako politiketan txertatzea. Zeharkakotasun-politiken alorrean hainbat lanketa egiten diren arren, lankidetzak eta sinergia berriak bilatu, aztertu eta martxan jartzea jaso da.

Halaber, eta Donostiako Udaletik haratago, Gipuzkoa nahiz Euskadi mailan haur, nerabe eta gazteen sustapenean lanean diharduten eragile eta erakundeekin lankidetzak sendotu eta berriak identifikatu eta sustatzea proposatu da. Bide honek haur, nerabe eta gazteen errealitatera hurbiltzeko ezagutza zabalagoa eta estrategia berriak eskaini ditzake, esku hartzea sendotzearekin batera.

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	LAN-ILDOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA			
				2021	2022	2023	2024
3. ERRONKA: Zeharkakotasun-kultura	3.1 Haur, nerabe eta gazteen sustapena zeharkakotasunez lantzea	3.1.1 Haur, nerabe eta gazteen sustapenaren zeharkakotasun izaeraz jabetzea	3.1.1.1 Donostiako Udalean haur, nerabe eta gazteen sustapena zeharkakotasunez lantzeko estrategia definitu eta garatu		x	x	
			3.1.1.2 Haur, nerabe eta gazteen sustapena zeharkakotasunez lantzen duten ereduak ezagutu (beste udalerrri batzuk...)		x	x	
			3.1.1.3 Donostiako Udaleko gainerako sailei eta erakundeei haur, nerabe eta gazteen sustapena barne-biltzeko trebakuntza eskaini		x	x	

		3.1.2 Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako zeharkakotasun politikak garatzea	3.1.2.1 Donostiako Udaleko sail eta erakunde desberdinekin haur, nerabe eta gazteen sustapen-arloko koordinazio-espazio bat sortzeko aukerak aztertu			x	
			3.1.2.2 Udal politikan haur, nerabe eta gazteen sustapenean eragiteko irizpideen dekalogoia prestatu			x	
			3.1.2.3 Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren zerbitzu barneko lankidetzak egonkortu		x		
			3.1.2.4 Donostiako Udaleko sail eta erakunde desberdinekin helburu partekatuarak identifikatu eta lankidetzak egonkortu	x	x	x	x
			3.1.2.5 Donostiako Udaleko sail edo erakunde batekin elkarlanerako bide berriak landu, definitu eta garatu			x	
	3.2 Donostiako Udaleko zeharkako politikak sustatzea	3.2.1 Gazteria Sailak zeharkako politikan parte hartzea	3.2.1.1 Zeharkako politikan jarraipena egin eta elikatu	x	x	x	x
		3.2.2 Zeharkako gaiak Gazteria Saileko egitekoetan gehitzea	3.2.2.1 Zeharkako gaiak Gazteria Saileko zerbitzu eta programetan txertatzeko moduak berrikusi eta sistematizatu		x		x
	3.3 Lankidetzak erakitzea, haur, nerabe eta gazteen sustapenak duen zeharkakotasun-izaera kontutan hartuta	3.3.1 Gazteria alorreko eragileekin lankidetzak finkatzea	3.3.1.1 Gaztematika sareko parte hartzea finkatu	x	x	x	x
			3.3.1.2 Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlana sendotu			x	
		3.3.2 Zerbitzu eta programetako entitate eta eragileekin elkarlanak indartzea	3.3.2.1 Zerbitzu eta programetako entitate eta eragileekin koordinazio bideak berrikusi eta elkarlana sustatu		x		x
			3.3.2.2 Zerbitzu eta programen hobekuntza eta berrikuntzarako espazioak sortu			x	
		3.3.3 Beste entitate, erakunde edo eragileekin harreman estrategiko berriak ezartzea	3.3.3.1 Haur, nerabe eta gazteen sustapenean diharduten entitate, erakunde edo eragileak identifikatu		x		
			3.3.3.2 Haur, nerabe eta gazteen sustapenean diharduten entitate, erakunde edo eragile batekin elkarlan berri bat abiatu			x	

4. ERRONKA – POSIZIONAMENDUA

Gazteria Sailak Donostiako Udalean duen posizioa indartzeko beharra ikusten da, bai Gazteria Siletik bertatik, baita Donostiako Udaleko gainerako sail eta erakundeetatik ere.

Haur, nerabe eta gazteen sustapena ezinbestekoa da gure hiriko haur, nerabe eta gazte guztien ongizaterako. Zentzu honetan, lau urte hauetan, haur, nerabe eta gazteen sustapenak zer nolako zentralitatea duen adieraztean jarri nahi ditugu indarrak, horretarako ekintza desberdinak aurreikusiz.

Gazteria Sailaren posizionamendua indartzeko ere, Gazteria Sailaren marka-posizionamenduaren lanketan sakontzea eta komunikazio estrategian eragitea lehenetsi dira, beti ere, subjektu hartzaile diren haur, nerabe eta gazteengana iristea helburu.

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	LAN-ILDOAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA			
				2021	2022	2023	2024
4. ERRONKA: Posizionamendua	4.1 Gazteria Sailaren posizionamendu politikoa indartzea	4.1.1 Haur, nerabe eta gazteen sustapena agenda politikoa kokatzea	4.1.1.1 Gazteriaren Euskal Legeak ekarri dituen aldaketa eta berrikuntzak jaso eta udal-mailan landu		X		
			4.1.1.2 Donostiako Udalbatza osatzen duten udal-ordezkariei haur, nerabe eta gazteen sustapen-arloko trebakuntza-saioa eskaini				X
			4.1.1.3 Udal-ordezkeri eta udal-teknikariekin haur, nerabe eta gazteen sustapenerako topaketa egin			X	
	4.1.2 Gazteria Sailaren beharrei erantzuneko baliabideak indartzea	4.1.2.1 Gazteria Saileko aurrekontuan Plan Estrategikotik eratorritako ekintzen garapenerako partidak integratu	X	X	X	X	
		4.2 Gazteria Sailer Donostiako haur, nerabe eta gazteentzat erreferente izatea	4.2.1 Gazteria Sailaren marka-posizionamendua lantzea	4.2.1.1 Gazteria Saileko komunikazio estrategia eguneratu		X	
	4.2.1.2 Komunikazio estrategiatik eratorritako ekintza-plana garatu					X	X
	4.2.2 Donostiako haur, nerabe eta gazteentzako erreferentzialtasunean sakontzea		4.2.2.1 Haur, nerabe eta gazteen eskubideak eta betebeharrak bisibilizatu eta horien gaineko sentsibilizazioa egin			X	

4.3 Ebaluazioa

Plan estrategikoaren ebaluazioaren bidez ekintza-planaren ezarpen-maila ezagutu ahalko dugu, erronkek lorpenerako jasotako helburu estrategiko, lan-ildo eta ekintzekin zerikusia duten arazoak antzeman ahalko ditugu eta etorkizunera begira fokua non jarri erabaki edo lehenesten lagunduko digu.

Horretarako, Gazteria Sailaren 2021-2024 plan estrategikoa kudeaketa-planen bidez antolatu eta kudeatuko da.

- Plan estrategikoaren indarraldiko urte bakoitzean urteko kudeaketa-planak prestatuko dira eta urte horretan bete beharreko helburua, lehenetsiko beharreko lan-ildoak eta aurrera eraman beharreko ekintzak zehaztuko dira.
- Kudeaketa-plana Plan estrategikoaren arduradunak prestatuko ditu eta Gazteria Saileko lantaldearekin kontrastatuko da.
- Urte amaieran, Gazteria lantaldeak urteko kudeaketa-planaren balorazioa egingo du eta hurrengo urteko kudeaketa-plana finkatuko du.

Halaber, plan estrategikoaren jarraipen estua egiteko jarraipen-tresna sortu dugu (IV. eranskina). Jarraipen-tresnak erronkak, helburu estrategikoak, lan-ildoak, ekintzak, epeak, arduradunak, aurrekontua... jasotzen ditu eta plan estrategikoaren garapenaren jarraipen orokorra egitea erraztu nahi du.

- Jarraipen-tresna osatzeko ardura nagusia Plan Estrategikoaren arduradunarena da, beti ere, Gazteria lantaldearen berrikuste eta jarraipenarekin.
- Era berean, lankide bakoitzak bere ardurapeko lan-ildo eta ekintzen jarraipena egin ahalko du, urtez urteko plangintza gainbegiratzearekin batera.
- Hortaz, plan estrategikoaren jarraipen orokorra noiz eta nola egin adostu beharko da.

Amaitzeko, 2024ko lehen seihilekoan plan estrategikoaren ebaluazio orokorrarekin hasia gomendatzen dugu eta horretarako kontutan hartuko dira urtez urteko kudeaketa-planak eta hauen balorazio-txostenak eta jarraipen-tresna.

Testuinguru honetan, plan estrategikoaren garapenean inplikazio eta parte hartze zuzena izan duten Donostiako sail eta erakundeekin eta Gipuzkoako eta Euskadiko gazteria alorreko eragileekin ebaluazio-bilerak egitea proposatzen da.

Ebaluazioaren bidez, besteak beste, alderdi hauek aztertu ahalko dira: plan estrategikoaren eragin-eremua eta sortutako aldaketak; plan estrategikoaren garapenean lortutako parte-hartzea, parte-hartze horren kalitatea eta planaren onuradun kopurua; plan estrategikoaren gauzatzea eta kronogramaren betetze-maila eta esleitutako aurrekontua; ...